

**2013KO MARTXOAREN 7AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Zazpia.

HILABETEA: Martxoa.

URTEA: Bi mila eta hamahiru.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK: M^a Mar Celaya Gonzalez
Aitor Larburu Izaguirre
Asier Sarriegui Zumarraga
Cecilia Herrador Garin
Idoia Baztarrika Prieto
Aitor Aldasoro Iturbe
M^a Luisa Valles Fernandez
Leire Artola Ugalde
Iñigo Arrese Artabe
Encarna Arrieta Telleria
Eva Diaz del Rio
Alfonso Segade Gonzalez
Ana María Crespo Blanco
Josi Insausti Mujika
Julio Herreros Serna
Garbiñe Zurutuza Fernández

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa, kontuhartzaileak ere parte hartzen du.

1.- AURREKO AKTA. 2013ko urtarrilaren 17ko aktaren onespena.

Aipatutako aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- ZINEGOTZIAREN KARGU HARTZEA, Idoia Baztarrica Prieto andreak.

Alkate jaunak (BILDU), ondorengoa dio: “IÑAKI SALDAÑA HERRERO jaunak zinegotzi karguaren errenuntzia aurkeztu ondoren, 2013ko urtarrilaren 17an egindako Plenoan errenuntzia hori onartu zen eta Hauteskunde Batzorde Zentralari eskatu zitzaion, legalki zinegotzi kargua hartzea dagokion hautagaiaren alde bidezkoa den egiaztagiria emateko. 2013ko otsailaren 1eko datarekin, IDOIA BAZTARRICA PRIETO andrearen alde emandako kredentziala jaso da.

IDOIA BAZTARRICA PRIETO andreak, bateraezintasun eta ondasunen aitorpena aurkeztu du eta orain egin behar duena da zinegotzi karguaren jabetza hartu, apirilaren 5eko 707/1979 Erret Dekretuaren bidez ezarritako zin-egite formula baieztatuz.”

Jarraian, Alkate jaunak, IDOIA BAZTARRICA PRIETO andreari legez ezarritako zin-egite formula irakurri dio, hau da:

“¿Zin egiten al duzu, zinegotzi karguaren obligazioak finko beteko dituzula, erregeari leial izanez eta Konstituzioa Estatuko oinarritzko arau legez betez eta bete araziz?.

IDOIA BAZTARRICA PRIETO andreak, ondorengoa erantzun du: zin egiten dut Legeak honela aginduta.

Horren ondorioz, zinegotzi karguaren jabetza hartu du.

3.- ERAIKINAK ZENBATZEKO PROPOSAMENA.

Une honetan Asier Sarriegi jauna sartu da batzarraldira.

Ezagutzera eman da, hirigintza batzordeko ondorengo proposamena:

- I. ITURRALDE TXIKI (8. Sektorea) zonaldeko urbanizazio-lanak amaituta, SALBATORE AUZOA igarota dauden eremuak izendatu eta eraikinak zenbakitu behar dira.
- II. Bestalde, AUSARTONDO SL enpresak IGARTETXEn burutzeko obra abian da eta, era berean, eraikitzen ari diren eraikinak zenbakitu egin behar dira.

III. 2012ko azaroaren 19an Hirigintza Batzordeak egindako proposamenaren aurrean, Euskara Saileko teknikariek industrialdea **“ITURRALDETXIKIKO INDUSTRIALDEA”** izendatzea proposatzen dute, **“ITURRALDE TXIKI INDUSTRIALDEA”** izendatu beharrean. Proposamen horren arrazoiak atxikitzen den txostenean agertzen dira.

Horrenbestez, Hirigintza Batzordeak Udalaren Osoko Bilerara eramango du akordio-proposamen hau, bertan ebatz dadin:

LEHENIK: 8. sektoreko eremua **ITURRALDETXIKIKO INDUSTRIALDEA** izendatzea, **bertako pabilioiak 1etik 7ra zenbakituz, Birpartzelatze-proiektuko partzelen arabera, pabilioi bakoitzari dagokion "X" zenbakia erantsiz.**

BIGARRENIK: AUSARTONDO SL sustatzailea eraikitzen ari den eraikinak zenbakitzea, **IGARTETXE KALEA 3 eta 5** gisa.

HIRUGARRENIK: Zenbaki horiek plano batean islatzea, formatu digitalean edota paperean, udalbarrutiko gainerako eraikinen zenbakikuntzarekin batera.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

4.- ZAZPITURRIETA, 4. AREAKO XEHETASUN AZTERLANA.

Birjarpen helegitea ebaztea.

Ezagutzera eman da, hirigintza batzordeko ondorengo proposamena:

“Gaia: birjarpen helegitea ebaztea.

AURREKARIAK.

2012ko Urtarrilak 17 eta 24ko datekin *ELKARTU* elkarteak eta Jose Miguel Iturrioz kaleko 15A eta 15B zenbakietako jabekideek sotoko plantako garajeetan zirkulatzeko eta baita hauetara sartzeko zailtasuna salatzen dute, batez ere mugikortasun gutxitua duten pertsonentzat. Ondorioz, eta ondoko orubean aurreikusitako eraikinak kontutan hartuta, hain zuzen ere, haren onarpenari errekurtsioa jaso duen Xehetasun Azterlanak antolatzen duena, garajeetako sarrera gaur egun dagoen lekutik egin eta irteera beste eraikinetik egitea eskatzen dute.

2012ko martxoaren 1eko idatziaren bidez, aurkeztutako eskaera aintzat harrezala eskatu zion Udalak ORMAKi, Xehetasun Azterlanaren sustatzaile dena, beti ere, horretarako eragozpen teknikorikegongo ez balitz.

2012ko azaroaren 22an Udalak behin betiko onarpena eman zion Xehetasun Azterlanari, arestian aipatu eskaerari erantzuten diona zati batean.

2012ko abenduaren 21ean *ELKARTU* elkarteak birjarpen errekurtsua aurkeztu dio ORMAKek sustatu duen A.U.4 OLARAN eremuko 4.1 Egikaritze Unitateko 3, 4 eta 5 lursailetako Xehetasun Azterlaren Aldaketaren behin betiko onarpenari. Aipatu birjarpen errekurtsuan jatorrizko eskaera berresten da, haren orde, azkenean onartzen den konponbidea edozein dela ere, plataforma birakaria instalatzeko beharra ekiditea edota, bere kasuan, berau eragite automatikoduna izatea, iradokitzen den arren.

2013ko urtarrilaren 17ko datarekin, ondorengo TXOSTEN TEKNIKOA ematen da:

“Sinatzen duenaren iritziz, azaleratzen diren arrazoiak ez dira inolaz ere nahikoak errekurtsua onetsi eta hartutako erabakiari atzera eragiteko, izan ere, azaltzen den arazoak ez baitu zerikusirik onartutako planeamendu tresnarekin.

Hau da, ORMAKek sustatu duen A.U.4 OLARAN eremuko 4.1 Egikaritze Unitateko 3, 4 eta 5 lursailetako Xehetasun Azterlaren Aldaketa bat dator indarrean dagoen hirigintza arautegiarekin eta bere izapidetzeak Legeak ezarritako betebeharrak bete ditu. Are gehiago, izapidetzean zehar errekurtsu jartzaileari entzunaldia eman zaio eta sustatzaileak, borondatez, eskaerari erantzuna eman dio, zatika bada ere.

Gure aldetik, 2012ko otsailaren 22ko txosten teknikoak bere osotasunean berretsi behar dugu, izan ere, garaje partikularretara sartzeko eta irteteko ibilgailuen zirkulazioa lursail pribatuan bertan ebatzi behar baita orokorrean, espazio publikoa hipotekatu gabe. Gainera, espazio publikoan arrapala eraikitzeak aukera bereziki ezinezkoa da kasu honetan, 2012ko otsaileko txostenean azaltzen den bezala. Honela dio:

“Ezaugarri teknikoak dagokienez, kontutan eduki behar da bi irteera independente beharko liratekela: bata, behe solairuko garajeetatik irteteko eta bestea, sotoetik irteteko. Honek etxebizitza eraikinaren eta Olanaren fabrikaren arteko espazio publikoan sartzeko dakar; espazio publiko horretatik gainera, Joan XXIII kalera joateko instalatzeko asmoa dagoen igogailu publikora iristen da. Sotoetik irten ahal izateko espazio publikoaren kotatik sotoaren kotaraino ranpa bat eraiki behar da gainera, azalera guzti hau espazio libre bezala erabiltzeko erabat erabilkaitza bihurtuz; eta beraz, aipatutako espazio publikoaren azalera asko gutxituz.

Horregatik, ez da bideragarria ikusten sotoko garajeetako irteerea aurrikustea; aitzitik, behe solairuko irteera egitea posible ikusten da, ez baitakar aurrikusitako espazio publikoaren aldaketarik eta gutxitzerik eta sortutako trafikoa puntuala izango baita. Hala ere, soluzio konkretua Xehetasun Azterlanean jaso beharko da Behin Betiko Onespena eman aurretik.”

Azkenean, behin betiko onarpena jaso duen Xehetasun Azterlanak txostenaren iradokizunak bere osotasunean jasotzen ditu.

Arazoa eraikuntza proiektuaren eremura lekualdatzen da beraz, bai eraikin berriei dagokiena (3 eta 4 lursailak), baita, batez ere, dagoeneko eraikiak diren eraikinei dagokienez (1 eta 2 lursailak), izan ere, sustatzaileak argudiatzen duen aparkaleku kopuruaren galerak ezin baitu inola ere indarrean dagoen iresgarritasun legediaren urratzea arazoitu.

Hau da, eraikuntza proiektuak lursail pribatuaren barnean eta indarrean dagoen araudiaren arabera ebatzi behar du aurreikusitako erabilera guzti-guztietarako iresgarritasuna. Udalari dagokio, edozein kasutan, aipatu iresgarritasun araudia bere osotasunean betetzen dela bermatzea.

Hala ere, planeamendu orokorrari dagokio antolaketa baldintza nahikoak ezartzea, aurreikusitako aprobetxamenduak eragiten dien araudi anitza betetzeko moduan gara daitezen, eta xehetasun azterlanak nekez konpon ditzake haren akatsak edota aurreikuspen ezak.

Horren ondorioz, Hirigintza Batzordeak ondorengo erabaki proposamena egiten dio Udalbatza Osoari:

Lehenik. ELKARTUk aurkeztutako birjarpen helegitea ez onartzea, txosten teknikoaren arabera.

Bigarren. Hartutako erabakiaren berri ELKARTUari ematea, beronen aurka aurkeztu daitezkeen errekurtsoen aipamena eginez.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Julio Herreros jaunak (PP): “Voto en contra.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Guk ere ezezkoa botatuko dugu hirigintza batzordean egin genuen bezala. Ezezkoaren arrazoia zera da, alde batetik, kaltetua izan den pertsona bati ez zaio onartzen dituen eskubideak, nahiz eta atez kanpo denak onartu kaltea jasan duela. Proposamenak iristen direnean, bizilagun hori alde batera uzten dugu, jasandako kalteak ez zaizkiolako onartzen. Beste alde batetik, Elkartuk egin duen eskaera. Aurretik zetorren arazo bati, irtenbidea emateko, hirigintza batzordean planteatu zen eta hirigintza batzordean onartu zen, Alkateak esanda, akordio batera iritsiko zitekeela promotorarekin, bertan zegoen atea kendu eta irtenbide bat emateko. Han ere jakin arazi zen azalera bat kenduko zitzaiola promotoreari eta esan zen lortuko zela. Borondatek harantz ez dago gauza handirik. Atzea botatzen da eta urretik zegoen moduan geratzen da inolako hobekuntzarik jaso gabe. Guk hori guztia kontutan hartuta ezezkoa botatzen dugu eta esan guretzat kuriosoa dela bilkura honetan sozialistatzat zuen burua duzuenok, gizarteko arazo hauei bizkarra modu honetan ematea. Ez dugu ulertzen eta guk horregatik ezezkoa botatuko dugu.”

Alkate jaunak (BILDU): “Arkitektoaren txostenean garbi azaltzen da, aurkeztu den errekurtsu honek ez diola iresgarritasunaren arazoari irtenbidea ematen. Lehenengo puntuko arazo horretan, ni behintzat ez naiz berriro sartuko.”

Une honetan Enkarni Telleria (EAJ) andrea batzar aretotik atera egin da.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egina eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (BILDU, PSE-EE/PSOE, ARALAR)

Aurkako botoak: 7 (EAJ, H1, PP)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

Una honetan sartu da batzarraldira, Enkarni Telleria (EAJ) andrea.

5.- ENPLEGUA SORTZEAGATIKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA. Hasierako onespena.

Alkatea jaunak (BILDU) Hazienda batzordeko proposamenaren berri eman du:

“GAIA.- Enplegua sortzeagatiko dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza.

AURREKARIAK

2.012ko urriaren 11n Udalbatzak egindako bileran, udalerrian kokatuta egonik enplegua sortzen zuten enpresei dirulaguntzak emateko araudia prestatzeko erabakia hartu zen.

Honen aurrean, Hazienda Batzordean aztertu eta eztabaidatu ondoren, honekin batera bidaltzen den Ordenantza-zirriborroaren onespenerako PROPOSAMENA egiten zaio Udalbatzari.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Gure proposamena izan zen, 2012ko urriaren 11n egin genuen eta eskertzen dugu proposamen hau aurrera eramatea. Hala ere esan, legegintzaldi honetan lehenengo erabakia dela enplegua sustatzeko Udalak bere kabuz hartzen duena, baina iruditzen zaigu ezin dela horretan gelditu. Ea 900era doa Beasainen dauden langabetuak. Oraindik esperantza dugu. Enplegu formakuntzarako ikastaroak planteatu genituen eta iruditzen zaigu inoiz baino gehiago beharrezkoak direla, kanpoko estamentuekin akordioak lortuz eta ikastaro horiek martxan jarritz. Iruditzen zaigu inoiz baino garrantzitsuagoa dela eta aintzakotzat hartzeko eskatzen diogu Gobernu Taldeari. Beste aldetik gure eskertzar aurkezten dugu horrelako ekimen bat aurrera eraman delako.”

Alkatea jaunak (BILDU): “Proposatutako beste dirulaguntzak ere bere lanketa darama, baina zailtasunak ditu gauzatzeko eta bere bidea jarraituko du.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda eta aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Jarraian transkribatzen den enplegua sortzeagatiko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzari hasierako onespena ematea.

Bigarren. Ordenantza jendaurrean jartzea, hogeita hamar laneguneko epean ediktu taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz, adieraziz epe horretan alegazio edo iradokizunik ez bada izaten, ordenantza behin betiko onartua geldituko dela.

EMPLEGUA SORTZEAGATIKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

Gaur egungo langabezi tasa altuaren eta krisi ekonomikoaren egoeraren aurrean, Beasaingo Udalak, toki garapenaren eragile aktiboa izan nahi du, udalerrian kokatutako enpresek langileak kontratatu ditzaten erraztuz. Beraz, 2.012ko urriaren 11ko Udalbatzan onartutakoaren arabera, Beasaingo Udalak enpleguaren sustapenerako ondorengo laguntzak ezarri ditu.

1. Artikulua.- Eremua

Programa hau aplikatu ahal izango zaie Beasaingo udalerrian kokatu eta langile berriak kontratatzen dituzten empresa guztiei.

2. Artikulua.- Helburua

Ordenantza honen helburu diren laguntzak ondorengoak dira:

a) Beasaingo Udalak likidatutako Eraikuntza, Obra eta Instalazioen gaineko Zergaren (E.O.I.Z.) %50aren dirulaguntza emango die, lokala handitu edo egokitu beharra dutenei, jarduera handitzearen ondorioz, ondoren pertsonal berria kontratatuzko, baldin eta egokitzapen edo zabalkuntza lanetarako obra-proiektua beharrezkoa bada.

b) Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergaren (J.E.Z.) %50aren dirulaguntza, 2 urtetan, pertsonal berria kontratazearen ondorioz.

Bi dirulaguntzak bateratu ahal izango dira.

3. Artikulua.- Laguntzaren onuradunak

Beasaingo udalerrian kokatuta egon eta Ordenantza honetan xedatutako baldintzak betetzen dituzten enpresak, industria, komertzio nahiz zerbitzu izaera dutenak.

4. Artikulua.- Betebeharrak

4.1.- Eraikuntza, Obra eta Instalazioen gaineko Zergaren %50eko dirulaguntza eskuratu ahal izateko betebeharrak:

a) Plantila, gutxienez, %25 handitzen dela egiaztatzea, dirulaguntza eskatutako aurreko hilabetearekiko.

b) Gehikuntza urte BATEan mantentzea.

c) Azken urtean plantila murriztu ez izana.

- Ez da exijituko kontratatutako pertsonak langabezi egoeran egotea.
- Onuradunak geroratu edo zatikatutako zorrak dituen kasuan, dirulaguntzaren kopurua haiek kitatzera bideratuko da, lehenik.
- Kontratazio berriak, lanaldi osorako nahiz lanaldi partzialerako izan, onargarriak izango dira.
- Kontratu berrien iraupena, gutxienez, urte betekoa izango da etenik gabe.
- Obra baimenaren ondoriozko tasa eta zergak ordainduta izatea.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren aurrekoak egunean izatea.

4.2.- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren %50eko dirulaguntza, 2 urtetan, eskuratu ahal izateko betebeharrak:

a) Plantila, gutxienez, %5 handitzen dela egiaztatzea, dirulaguntza eskatutako aurreko hilabetearekiko.

b) Gehikuntza BI urtetan mantentzea.

c) Azken urtean plantila murriztu ez izana.

- Ez da exijituko kontratatutako pertsonak langabezi egoeran egotea.
- Onuradunak geroratu edo zatikatutako zorrak dituen kasuan, dirulaguntzaren kopurua haiek kitatzera bideratuko da, lehenik.
- Kontratazio berriak, lanaldi osorako nahiz lanaldi partzialerako izan, onargarriak izango dira.
- Kontratu berrien iraupena, gutxienez, 2 urtekoa izango da, etenik gabe.
- Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zerga ordainduta izatea.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren aurrekoak egunean izatea.

4.3.- Dena den, enplegu-erregulazio espedientea izapidetzen ari bada edo indarrean badu enpresak, eskariaren onarpena edo ukapena, Hazienda Batzordeak egiten duen azterketa eta baloraziora baldintzatuta egongo da, hain zuzen ere, honek egoki deritzona erabaki ahal izango baitu.

5. Artikulua.- Dirulaguntzen zenbatekoa

- Eraikuntza, Obra eta Instalazioen gaineko Zergaren %50a.

- Jarduera ekonomikoaren gaineko Zergaren %50a 2 urtetan, eskaria egindako urteko ordaingiritik abiatuta. Jarduera Ekonomikoaren gaineko. Hainbat herrien artean zerga banatu beharreko kasuan, dirulaguntzarako, soilik Beasaini dagokion kopurua hartuko da kontutan. Beharrezkoa izango da, zerga ordainduta izatea.

6. Artikulua.- Eskaria egiteko epea

Eraikuntza, Obra eta Instalazioen gaineko Zergaren %50aren dirulaguntzarako obra-zergaren kitapena jakinarazten den datatik kontaktzen hasita, , 2 hilabeteko epea izango da.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren %50aren dirulaguntzarako, 2 urtetan, pertsonal berria kontratatzen den datatik kontaktzen hasita, 2 hilabeteko epea izango da.

7. Artikulua.- Eskariak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eraikuntza, Obra eta Instalazioen gaineko Zergaren %50eko dirulaguntza eskuratzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- a) Eskaria, I eta Eranskinak barne, behar bezala osatu eta sinatuak.
- b) Pertsona juridikoaren I.F.K.aren kopia.
- c) Merkataritza-Erregistroan inskribatutako eraketa eskrituraren kopia, eta ordezkariaren ahalordea, berezko nortasun juridikoa duten erakundeen kasuan. Berezko nortasun juridikoa ez duten sozietate zibilen kasuan, Foru Ogasunak zigilatutako kontratu pribatua aurkeztuko da.
- d) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotearen egiaztagiria.
- e) Memoria aurkeztuko da, arrazoituz, lokala handitu edo egokitzeko obrak, pertsonal berria kontratatzea arrazoitzen duen jarduera handitzean oinarrituta daudela.
- f) TC1 eta TC2 edo erregimen autonomoko ALTaren agiria, eskatutako plantilaren gehikuntza eta azken urtean berau murriztu ez izana egiaztatzeko.
- g) Kontratuen iraupena egiaztatzeko dokumentua.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren %50eko dirulaguntza, 2 urtetan, eskuratzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- a) Eskaria, I eta Eranskinak barne, behar bezala osatu eta sinatuak.
- b) Pertsona juridikoaren I.F.K.aren kopia.
- c) Merkataritza-Erregistroan inskribatutako eraketa eskrituraren kopia, eta ordezkariaren ahalordea, berezko nortasun juridikoa duten erakundeen kasuan. Berezko nortasun juridikoa ez duten sozietate zibilen kasuan, Foru Ogasunak zigilatutako kontratu pribatua aurkeztuko da.
- d) TC1 eta TC2 edo erregimen autonomoko ALTaren agiria, eskatutako plantilaren gehikuntza eta azken urtean berau murriztu ez izana egiaztatzeko.
- e) Kontratuen iraupena egiaztatzeko dokumentua.

8. Artikulua.- Dirulaguntzak onartu eta ordaintzeko prozedura.

Dirulaguntza eman edo deuseztatzearen berri, erakunde eskatzaileari idatziz jakinarazitako ebazpen bidez egingo da.

Eskariaren ebazpena, beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu ondoren, baldintza guztiak betetzen direla egiaztatu eta gero egingo da.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kasuan, ekitaldi ekonomiko bakoitzean egingo da dirulaguntzaren ordainketa, eskaria egindako urtetik kontatzen hasita eta zerga ordaintzeko borondatezko epea iragan ondoren.

9. Artikulua.- Kontratuen iraupenaren baldintza betetzen denaren egiaztapena

Lehen aipatutako 1 edo 2 urteak igaro ondoren, eskatutako epean kontratua mantendu izana egiaztatu beharko da, horretarako Udalak kontratatutako langilearen lan-bizitzaren agiria eskatuko du, epe osoan plantila murriztu ez izanaren egiaztagiriekin

batera. Baldintzak beteko ez balira, emandako dirulaguntzaren itzulerarako prozedura jarriko da abian.

10. Artikulua.- Eskaria berria eta aurrez emandakoaren arteko bateragarritasuna
Bateragarriak izango dira dirulaguntza berri baten onespena eta ordainketa, nahiz eta aurrez emandako dirulaguntzari dagozkion ordainketak amaitu gabe izan.

Azken xedapena

Ordenantza hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera sartuko da indarrean.”

I. ERANSKINA / ANEXO I

Legezko ordezkariaren izen-abizenak / Nombre y apellidos del representante legal:		
N.A. / D.N.I.	Kargua / Cargo en la empresa:	
Empresaren izena / Razón social de la empresa:		
I.F.K. / C.I.F.		
Empresaren helbidea / Domicilio social de la empresa en: Kalea eta zenbakia / Calle y número:		
Udalerría / Municipio	P.K./C.P.	Telefonoa
E-posta / E-mail	Faxa / Fax	

ZINPEKO ADIERAZPEN HAU EGITEN DU: 1.- Enpresa ez dela aurkitzen 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitako egoeretan. 2.- <input type="checkbox"/> Diruz laguntzen den ekintzak ez duela jaso bestelako dirulaguntza, laguntza, dirusarrera edo baliabiderik. <input type="checkbox"/>Erakundetik/ra€ jaso/eskatu dituela. 3.- Udalari baimena ematen diola zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren aurrekoak egunean izatearen egiaztagiriak eskuratzeko dagozkion erakundeetatik.	REALIZA LA SIGUIENTE DECLARACIÓN JURADA: 1º.- Que la empresa no está incurso en las causas previstas en el ar. 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones, para obtener la condición de beneficiario. 2º.- <input type="checkbox"/> No haber obtenido otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien el hecho subvencionado. <input type="checkbox"/> Haber solicitado/recibido subvención de por importe de€ 3º.- Que autoriza al Ayuntamiento a obtener de las organismos correspondientes, los documentos acreditativos de estar al corriente de sus obligaciones tributarias y ante la Seguridad Social.
--	--

Beasainen, 201.....koaren ...an/Beasain, de de 201...

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresaren zigilua
Firma del representante legal y sello de la empresa

II. ERANSKINA / ANEXO II

Legezko ordezkariaren izen-abizenak / Nombre y apellidos del representante legal N.A. / D.N.I.	
Enpresaren izena / Razón social de la empresa I.F.K. / C.I.F.	

Ondorengo kontuan eskatzen du Solicita el abono de la subvención en la dirulaguntzaren ordainketa siguiente cuenta:

Kontuaren titularraren izen-abizenak / Nombre y apellidos del titular de la cuenta:
Bankua edo aurrezki-kutxa / Banco o caja:
Sukurtsala / Sucursal:

Entitatearen kodea Código entidad	Sukurtsal kodea Código sucursal	K.D. D.C.	Kontuaren zenbakia Nº de cuenta

Agiri hau sinatzen duenak bere gain hartzen du emandako datuen egizkotasunaren ardura.	La / el abajo firmante se hace plenamente responsable de la veracidad de los datos
--	--

Beasainen, 201..ko(a)ren(a)n/Beasain, de de 201..

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresaren zigilua / Firma del representante legal y sello de la empresa	Bankua edo aurrezki kutxaren sinadura eta zigilua / Firma y sello de la entidad bancaria
--	---

6.- BEASAIN LANTZENeko ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN KIDE IZENDATZEA. Garbiñe Zurutuza Fernandez.

Alkatea jaunak (BILDU), ondorengo proposamenaren berri eman du:

“Gaia: Beasain Lantzen, S.A.ren Administrazio Kontseiluaren kidea izendatzea.

1.- 2012ko urriaren 11ko batzarraldian, Unai Baztarrika jaunak aurkeztutako zinegotzi karguaren errenuntzia onartu zen eta 2012ko abenduaren 20ko batzarraldina, Garbiñe Zurutuza Fernández andreak zinegotzi karguaren jabetza hartu zuen.

2.- Unai Baztarrika Otegi jauna Beasain Lantzeneko Administrazio Kontseiluaren Kontseilaria izendatua izan zela, 2011ko urriaren 6ko Udalbatza Osoan.

Horren ondorioz, Alkatea naizen honek Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten diot:

Lehenik. Unai Baztarrika Otegi jaunaren alde egindako Beasain Lantzen, S.A.ren Administrazio Kontseiluko kide izateko izendapena bertan behera uztea.

Bigarren. Beasain Lantzen, S.A.ren Administrazio Kontseiluko Kontseilaria, Garbiñe Zurutuza Fernández andrea izendatzea.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 16 (BILDU, EAJ, PSE-EE/PSOE, H1, ARALAR)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (PP)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

6.- MOZIOA. BILDUK aurkeztutako mozioa, 197/2006 Doktrinari buruz (Parot).

Alkatea jaunak (BILDU), mozio honen berri eman du:

“197/2006 DOKTRINA: ZIGOR GEHIGARRIAREN ANKERKERIA

2006ean, Espainiako Auzitegi Gorenak, kode penal zaharrean epaituriko presoek zegozkien erredentzioak, kode hark ezartzen zuen bete beharreko gehienezko 30 urteei baino, ezarritako kondena osoari aplikatzeko doktrina ebatzi zuen. Hau da, 1973-ko kode penalak, kondena konplitzeko gehienezko urte kopurua 30 urteetan ezartzen zuen eta erredentzioen bidez, bete beharreko urte kopurua jaisten zen. Erredentzioen aplikazioak bete beharreko kondena 15 urtetan ezartzen zuen

automatikoki, eta horrez gain, erredentzio gehiago eskuratu zitezkeen ikasketekin edo bestelako jarduerekin, bete beharreko kartzelaldi denbora jaitsiz.

1995ean eta 2003an kode penalean aldaketak eman ziren. Aldaketa horiek euskal presoen aurkako neurriak gogortzera bideraturik zeuden, preso diren pertsonen dagozkien eskubideak salbuespenez murriztuz . 95-ean kondena betetzeko urte mugak 30, 25 eta 20 urteetan ezarri, eta erredentzioak desagertu egin ziren. 2003-an berriz, kondena betetzeko muga 40 urtera igo zen.

Kode penal berriak ezarritako neurriak ez direnez erretroaktiboak , hau da, ezin direnez aplikatu aurretiaz epaituriko pertsonen aurka, Auzitegi Gorenak 197/2006 doktrina erabili zuen ateratzear zeuden euskal presoek kondena luzatzeko.

Ordutik hona, 83 euskal preso politikori ezarri zaie doktrina . Horietako 12, garaian ezarritako kondenaz gain doktrinaren kondena luzapena bete ostean atera dira kalera. Gaur egun, 67 dira doktrina hau aplikaturik kartzelan aurkitzen diren presoak. Horietatik 54 kondenaren luzapena ari dira betetzen, eta beste 13-ri doktrina aplikatu zaie ezarri zitzaizen kondena bete aurretik . Beste 4 lagun kalean daude, baina doktrina ezarria dute.

Doktrina honen bidez, euskal presoek aurka bizi arteko zigorra aplikatzen da. Ondorioak aski krudelak dira, 95 izanik 20 urte baino gehiagoko espetxealdiak igaro dituzten pertsonak. Gaur egun 29 presok 25 urte baino gehiago daramazkete espetxean . Neurri honek, oinarrizko giza eskubideak denak urratzen ditu. 20 urtetik gora espetxean emateak itzulezinak diren ondorio fisiko eta psikologikoak dakartzala frogatua daga.

ESPAINIAKO AUZITEGI KONSTITUZIONALAREN EBAZPENA 197/2006 DOKTRINARI BURUZ

2012an Auzitegi Konstituzional espainolak, 2006an indarrean jarritako doktrinaren kontrako helegiteak ebatzi ditu, doktrinaren aplikazioa babestuz. Bere ebazpenean ez du doktrinaren funtsari buruzko azalpenik ematen eta irizpidea aldatzeko aukera, tribunalei dagokiela argudiatzen du.

Auzitegi Konstituzionalak , 47 erabaki jakinarazi ditu (beste 20 kasu erabakitzeke) . Horietatik 3 tramitera hartzea ukatuak izan dira, 22 tramitera onartuak, eta beste 3ren kasuan anparoa onartua izan da, hiru preso hauek kalera atera direlarik. Beste 19 kasu ukatuak izan dira.

ESTRASBURGOKO GIZA ESKUBIDEEN TRIBUNALAREN EBAZPENA

Estrasburgoko Giza Eskubideen Tribunalak ordea, Ines Del Río euskal presoaren kasuan oinarriturik, 197/2006 doktrina ez legezkoa eta oinarrizko eskubideen aurkakoa dela ebatzi zuen 2012ko uztailean. Ebazpena, AHO BATEKOA izan zen.

Tribunal honen ebazpenak, doktrinak, askatasunerako eta segurtasunerako oinarrizko eskubideak urratzen dituela dio, eta ez dela legezkoa aurrez ezarritako

zigorra luzatzea. Ines del Río preso berehala aske uztea eta 30.000 euroekin kalte moralak berrezartzea ebatzen du era berean.

Ebazpenaren eragina ez da Inesen kasura mugatzen, doktrinaren funtsa aztertu ondoren eta berau jotzen bait du, ez legezko. Horrek doktrina bera, bertan behera uzteko bidea zabaltzen du; formalki Espainiar gobernuaren esku dagoen erabakia da hori.

Edonola ere, Ines del Río-ren inguruko ebazpena LOTESLEA DA, Europako Giza Eskubideen Konbentzioaren 46. artikulua, „ESTATUAK GORTEAREN EBAZPENAK ONARTZERA BEHATZEN BAIT DITU.

Espainiako Estatuak helegitea tarteratu du. Helegite hau, Estrasburgoko Giza Eskubideen Tribunalean berrikusiko da datorren martxoaren 20. Tarte horretan Ines del Río kartzelan mantentzea ere, espainiar estatuak egiten duen beste lege-hauste bat gehiago da.

Estatu batek Estrasburgoko Tribunalaren ebazpen bat ez onartzea eskandalo politiko eta juridiko izugarria da. Espainiar estatuak gai honen aurrean duen jarrerak agerian uzten du euskal presoek aurka salbuespeneko legedia eta bitartekoak aplikatzen direla. Presoek eta beraien senitartekoei dituzten eskubideak urratuaz eta nazioarteko Giza Eskubideen Arauen gainetik pasaz.

Honen aurrean, BEASAINGO Udalak honako erabaki hau hartzen du:

1.- 2012ko uztailan, Estrasburgoko Giza Eskubideen Tribunalak, aho batez, Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren 197/2006 doktrina (Parot doktrina gisa ezagutu dena), ez legezkoa eta oinarrizko eskubideen aurkakoa dela ebatzi ondoren, berau bertan behera uzteko eskatzen du udal honek. Ondorioz eta nazioarteko giza eskubideen legeria aplikatuz, 197/2006 doktrina aplikatu zaien euskal preso guztiak berehalakoan aske uzteko eskatzen dugu.

2.- Euskal Herrian bizi dugun itzaropen eta konponbide aukeraren aurrean, euskal presoek aurkako salbuespeneko legeria bertan behera uzteko eskatzen du udal honek.

3.- Ebazpen honen berri, herritarrei eta Europako Kontseiluko Giza Eskubideetarako Komisionatua den Nils Muiznieks Jaunari ematea erabakitzen da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herrerros jaunak (PP): “en esta moción se habla de las consecuencias crueles de la aplicación de la doctrina Parot. No se plantearon esos asesinatos las consecuencias crueles que iban a tener sus actos sobre sus víctimas y sus familias. ¿Es que matar con un tiro en la nuca o poner bombas matando a niños, mujeres y hombres sin discriminación no es cruel?. ¿Cómo se llama a eso?. TENER LA CARA MUY DURA.

Permanecer más de veinte años en prisión, provoca daños físicos y psicológicos irreparables, y ¿los daños que han causado ellos con sus

asesinatos?, ¿tiene reparación la muerte de más de ochocientas personas?, ¿tienen reparación las secuelas físicas y psicológicas de los que tuvieron la suerte de sobrevivir a los atentados y sufrieron horribles mutilaciones?, ¿tienen reparación las secuelas psicológicas de las esposas, hijos e hijas y padres a los que arrebataron un hijo, un padre o un marido de una forma tan cruel?, Cientos de familias que día a día tienen que vivir con el horror que estos asesinos les provocaron.

Además están los daños psicológicos provocados a todos los que llevamos años y años escoltados viviendo bajo la amenaza diaria de muerte como si fuéramos dianas andantes. ¿Ustedes saben qué es salir de casa pensando que igual no vuelves a ella porque pueden darte un tiro en la nuca o ponerte una bomba y matarte? ¿Creen que eso no tiene secuelas?, y ¡no sólo para los amenazados sino también para sus familias!

En cuanto a la propia moción, puntualizar que en el País Vasco no hay ningún conflicto, sino una banda terrorista llamada ETA, que mata y asesina de forma brutal y cobarde y unas víctimas que lo sufren. No hay leyes de excepción sino una modificación del Código Penal que puede no gustarles, pero que fue ratificada por el Tribunal Constitucional y que yo comparto.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “El grupo socialista va a votar en contra de esta moción, entre otras cosas porque es una moción cuyo contenido desborda el ámbito de actuación y competencia de este Ayuntamiento. La llamada doctrina Parot, fue implantada por el Tribunal Supremo sobre la forma de computar las penas por los condenados por varios asesinatos. El Código Penal es un asunto jurídicamente complejo que no puede sustanciarse en este Pleno. La prueba es que provoca controversias entre los propios expertos y jueces. El propio Tribunal Constitucional ha dado amparo a unos pocos presos que recurrieron a él, mientras que ha rechazado otros recursos. Por su parte el Tribunal Europeo de Derechos Humanos desde Estrasburgo resolvió en julio de 2012, a favor de la puesta en Libertad de Inés del Río, pero el Gobierno de España, recurrió esta Resolución ante la Gran Sala del Tribunal, y el próximo día 20 de marzo, será su veredicto el que clarifique la cuestión y establezca si su doctrina se aplica al resto de los condenados o no. En consecuencia, lo razonable es esperar a ese pronunciamiento. Parece ser que el grupo de BILDU, en su moción ya da por hecho cual va a ser el fallo.

Podría argumentar más cosas pero mi compañera ahora mismo me recordaba que hoy hace cinco años mataron a un compañero en Mondragón, Isaías Carrasco, y su único delito fue el de pensar de diferente manera, Todo es entendible y todo puede ser aplicable y reivindicativo. No hay ningún problema, pero esto de aplicar el palo y la zanahoria, no es muy apropiado porque todos, algunos más que otros, hacemos un tremendo esfuerzo para que esto acabe y acabe bien, pero claro es difícil si el martes por la noche nos

saludan así (muestra una pintada contra el PSOE), y nos siguen saludando. Seguramente cuando nos hacen estas reivindicaciones, habría que mirar también para dentro, porque yo estoy seguro que esto son cosas de cachorros parcialmente descontrolados.

Por lo tanto nuestra posición va a ser NO a esta moción.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 14 (BILDU, EAJ, H1, ARALAR)

Aurkako botoak: 3 (PSE-EE/PSOE, PP)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da mozioa.

7.- ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Ezagutzera eman dira 2013ko urtarrilaren 12tik 2013ko martxoaren 2rarte emandako Ebazpenak.

8.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean, honelakoak aurkeztu dira:

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “El primer ruego sería el siguiente. Sabemos que se va a implantar el sistema de recogida de puerta a puerta en distintos municipios que pertenecen a la Mancomunidad de Sasieta. A raíz de los estudios que ha presentado ESCORA en esas localidades, se dice que sólo lo que es el sistema de recogida cuesta un 50% más que el sistema tradicional de recogida mediante contenedores. Los beasaindarras llevamos años aportando un dinero para el sellado del vertedero de Sasieta, que en 2014-2015, se va a tener que dar.

En ese sentido, quisiéramos que este Ayuntamiento pidiera a Sasieta la siguiente información: por un lado el dinero que hemos puesto los beasaindarras para ese sellado, y por otro, para qué se va a utilizar.”

Alkate jaunak (BILDI): “Hori eskatzeko ez dago arazorik, baina aurrekoetan ikusita zein arazo sortu dituen Plenoan ateratako gauzak aurrera eramateak, gustatuko litzakuge erregu horiek idatziz jasotzea.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Ados. Helaraziko dizut.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “La pregunta es en relación a los contenedores de Andre Mari y Erauskin. Continuamente se oyen alardes de

participación, pero en este caso, quisiéramos saber el haber quitado los contenedores de esas zonas con quien se ha contado y cómo ha sido. Es curioso que el sistema de recogida que os parece más oportuno sea el sistema de puerta a puerta (la misma expresión lo dice: casi se va hasta la puerta de casa a recoger la basura), y en este caso el resultado sea el contrario, es decir, el punto de basura está cerca de casa y se manda lejos. Creemos que la mayor distancia que tiene que recorrer la mayoría de la gente tanto en Esteban Lasa como en S. Inazio o Andre Mari, no va a ayudar a que el sistema de recogida sea el más apropiado.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Se han trasladado los contenedores frente a los aparcamientos de la parroquia. Los vecinos comerciantes que usaban estos servicios, calles Andre Mari, S. Inazio y Esteban Lasa, tienen que ir cargados hasta la nueva ubicación con bolsas, cubos, cajas, etc., y de noche. Este cambio ha supuesto un incordio para la mayoría de estos vecinos, a pesar de que este servicio lo pagan ellos. No nos parece de recibo justificar dicha orden, Sr. Alcalde, por una consulta realizada a media docena de vecinos, teniendo en cuenta el número de afectados. Por ello, pedimos al Sr. Alcalde se rectifique dicha orden, y se trate donde proceda y si hay que cambiar la ubicación, busquemos una solución y no se perjudique de esta manera a los vecinos afectados, que como he dicho antes son los que pagan dicho servicio. La pregunta que me surge es la de que si dos vecinos piden el puerta a puerta se van a empezar a colocar los postes.”

Herritar batek hitza eskatu du eta Alkate jaunak eman ondoren, esan du ez duela ulertzen Bideluze plazan zeuden edukinontziak zergatik kendu diren kontutan izan gabe inguru horretan dauden taberna pila.

ELKARTUk aurkeztutako errekurtsuari eman zaion erantzunari buruz adierazi du irisgarritasun legea urratu egin dela.

Alkate jaunak (BILDU): “Andre Mari kaleko zabor-puntua kentzea dela eta, ez genuen parte hartze prozesu bat egin. Argi dago. Bilera bat egin zen eta bilera horretara, S. Inazio eta Esteban Lasako merkatari guztien deituak izan ziren eta ez egunkariak azaldu zen bezala, 2 eta 4koak, baizik eta 2, 4, 6, 8, 1, 3, hau da puntu horretara joatea zeukaten gehienak deituak izan ziren bilera horretara. Bi edo hiru aukera ematen ziren. Dakizuen bezala, aspalditik dago puntu hori lekuz aldatzeko eskaera. Proposatua izan zen puntu hori lekuz aldatzea, momentu honetan kaltetuak zeudelako. Bilera horretan esan zen (bakoitzak bere etxekoa ikusten duenez), inork ez zuela nahi lekuz aldatzerik eta nahiago zutela puntu hori kendu eta gora joatea, lekuz aldatzea baino. Guk esan genuen guri gustatuko litzaigukeela lekuz aldatzea edo beste punturen bat bilatzea, baina beraiek nahiago zuten puntu hori kendu eta gora joan.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Estoy de acuerdo con lo que ha dicho Koldo, pero mi pregunta es si Sasieta ha participado en esas reuniones, porque

desde Sasieta se nos dice que no ha estado. En todo caso es curioso porque ha habido una única petición de cambio y todos los vecinos resultan perjudicados. Por eso es por lo que pedimos que los contenedores no se pongan arriba, no por capricho. Porque claro, no hace bonito que no se cuide como se cuidaba el punto ese de basura. Las campañas que se hicieron en su día fueron para eso. Porque haya habido una problemática puntual, creemos que no se debe de cambiar el punto de basura. Ez da bizilagunak eskatu dutela. Eskaera bakarra da. Hauek aldatu egin zuten sarrera eta denok horretara egokitu behar dugu!. Aldiz bizilagun guztiak izorratu behar dira horregatik. Guk hori da defendatzen ez duguna. Guri Sasietatik esan zaigu beraiek ez dutela erabakiarekin zer ikusirik.”

Alkatea jaunak (BILDU): “Sasietak erabakiarekin ez du zer ikusirik, baina Sasieta bilera guztietan izan da, bai bilera horretan eta baita ere Bideluzekoan.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “No estamos de acuerdo e insistimos en que la gente, los vecinos, los comerciantes tampoco están de acuerdo. Entonces, o estamos en diferente estadio o hablamos con diferentes personas. Sé que ha habido protesta formal verbal en el sentido de que se ha alejado mucho el punto de basura y es un incordio. Yo lo que pido es que se reconsidere, si hay un problema formal se mire y se busque una solución. No hagamos esas cosas que tanto criticamos a otros. La próxima orden que de el Alcalde será la de instalar un puerta a puerta porque dos vecinos se lo han pedido o también podemos hacer otra lectura, vamos a incordiar y como no tenemos una mayoría política para poder aplicar lo que a mi me gusta, vamos a presionar de manera indirecta, vamos a hacer la situación incómoda para que la gente en vez de ir tan lejos pida el cazuelito en la puerta.”

Alkate jaunak (BILDU): “No tiene nada que ver. El cambio no se ha hecho para provocar el puerta a puerta, ni nada de eso.

Bideluzeko puntuari buruz, Sasieta ere bilera izan zen. Puntu hori kendu zen obrak direla eta. Berrito jartzeko aukerak badaude eta aztertuta dago non jarri daitezken, baina ikusi beharko da jarri behar diren edo ez. Hurrengo puntua orain zegoenetik 50 metrotara dago eta niri behintzat ez zait iruditzen oso urrun egongo denik. Egia esan kexa asko ez ditugu jaso puntu hori ez dagoelako eta kexa formalak are gutxiago. Ba dakigu zein aurrekari dauden hor, baina lehen esan dudak bezala aztertuta dago berrito edukinontziak jarri beharko balira non jarriko diren, zubia ere lehenagoko egoeran ez delako geratuko. Aztertu behar da zein inpaktu bisuala duen eta praktikoki ere zer da egokiena.”

Herritar batek Alkateari hitza eskatu dio eta honek emanda gero esan du, Bideluzeko zabor-puntua gabonetako bezperan kendu zela eta denbora gutxi barru Beasaingo jaiak izango direla eta arazo berdina dagoela. Egun horietako arazoa konpontzea eskatu du.

Alkate jaunari esan dio maila ezberdinetan daudela, zeren eta badirudi Alkatearekin eta berarekin hitz egin dutenak ez direla pertsona berdinak.

Jarraian txosnen kokapen berriari buruzko aipamena egin du, bere desadostasuna azalduz.

Alkate jaunak (BILDU): “Ni hemen ez naiz hasiko eztabaidetan, baina etorri eta nahi duzun informazioa emango zaizu. Txosnei buruz esan, festetarako batzordean gai hori tratatu zela eta bertan tabernariak ere parte hartu zutela eta proposatutakoa ontzat eman zela.”

Herritarrak galdetu du txosnetakoak zein zerga ordaintzen dituzten eta sanitate aldetik zein baldintza betetzen dituzten.

Alkateak erantzun dio esanez festetako batzordea dela galdera horiek guztiak planteatzeko tokia eta animatu du bertan parte hartzeko. Aldi berean gogoratu du datorren asteartean izango dela hurrengo batzordea.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Udaleko gobernu taldeak logo berri bat aurkeztu du. Parte-hartze prozesu baten oinarritu du logoa, baina hor ere harriduraz gain, jakin nahi genuke non erabaki den logo berri hori egitea, zeintzuk parte hartu duten, zein kostu izan duen, zeintzuk egin duten logoa eta inongo alderdik jakin izan duen gobernu honetan logo hori izan behar zela. Harritzen zaidana da, parte-hartzearen alde egon eta prentsagatik enteratzea, udalak logo berri bat izan behar duela!. Ez zait egokiena iruditzen!”

Zezenia Herrador andreak (BILDU): “Ez da parte-hartze prozesu bat eramán. Gobernu taldeak eramán nahi duen politika islatu eta kaleratu nahi izan da. Ez da alde zuretik esan, hilabete honetan ez delako batzorderik izan. Diru kontuari dagokionez, pasatuko zaizue, oraindik ezin dizuegu esan zenbait den. Logoa egin du daukagun komunikazio-enpresak.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ), galdetu du ea Beasaingo enpresak horretarako gonbidatu diren, zein partidatik ordaindu behar den eta zenbait dagoen aurreikusita.”

Zezenia Herrador andreak (BILDU): “Ez zaio beste enpresei gonbidapena bidali horretarako. Ordainketa parte-hartze batzordeak duen materialen kontu-sailetik egin da.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ) galdetu du ea hori ondo dagoen. Bere ustetan gauza bat mantentzen delako eta beste bat sortze-ekintza. Horrela izan balitz, hau da, sortzeko kontu-saila aurreikusita balego, ondo ikusiko lukeela dio, baina bat-batean egin den bezala...!

Herritar batek Urbieta etxetik CAFeko elizaraino egin behar den bidegorriari buruz interesa azaldu du. Esan du, jakin badakiela hirigintza batzordean tratatu zela eta gai horrekiko akta eskatu zuela baina ez zaiola igorri.

Alkateak erantzun dio, bizikleta bide sarearen plangintza orokorra egin dela eta plan horren berri hirigintza batzordean eman zela. Plan horrek bidegorrien ardatz nagusia eta alboko ardatzak ere aurreikusten dituela azaldu du, baina oraindik zirriborro bat besterik ez denez, ere ez dagoela itxita,. Publikoki plana ezagutarazteko asmoa dagoela jakinarazi du eta aurkeztu daitezkeen iradokizun ezberdinekin egokitu eta osatu.

Herritar berak, gai-zerrendako laugarren puntuan hartutako erabakia ere aipatu du legearen aurkakoa dela azpimarratuz, iresgarritasun irizpideak ez direlako betetzen.

Alkate jaunak (BILDU): “Legeen inguruan nik gutxi edo hobeto esanda, ezer ez dut ulertzen. Gu informe teknikoetan oinarritzen gara eta informe hori egin duenak ez du esaten lege horren urraketak dagoenik. Zuk aipatzen duzunagatik barneko garajeetaz ari zara, baina hemen atzera botatzen dena da erabilera publikoa duen terrenoa pribatuentzat bakarrik izatea. Uste dut gauza ezberdinak direla, zeren eta norberak bere etxean bere soluzioak hartu behar ditu eta ez terreno publikoa erabili bere etxeko arazoa konpontzeko. Agian egokiena da teknikoarekin elkartzea, jakiteko bere iritziaren arrazoia.”

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera gaueko zortzietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.